

A2.2 MAILA

Nolakoa da Formentera.

ENTZUMENAREN TRANSKRIPZIOA.

KAZETARIA 1. Gaur kopako partida du Athleticek Balear Uharteetan. Eta Athleticek gaur Formenteran partida duela-eta pentsatu dugu uharte hori, isla hori hobeto ezagutzea. Itxaso Mingo leioarra da, eta bertan bizi da. Itxaso, kaixo!

ITXASO MINGO. Egun on.

KAZETARIA 1. Nolakoa da Formentera? Esplika iezaguzu, Itxaso, pittin bat.

ITXASO MINGO. Ba aber, da irla bat oso, aber, bai, da oso txikia. Baina badauka gauza handirik (asko) ikusteko.

KAZETARIA 2. Bereziki jendea imajinatzen dut udaran joango zela, orain lasai egongo dela ez?

ITXASO MINGO. Bai, claro, orain jendea...Orain geratzen da jendea hemen, turistak, baina bueno, ja joan da, joan da bastante jende etxera, ja.

KAZETARIA 2. Eta zu noiz joan zinen Formenterara bizitzera?

ITXASO MINGO. Ba ni etorri nintzen urtarrilean, aurten.

KAZETARIA 2. Eta zergatik?

ITXASO MINGO. Ba begiratu, ze nire lagun-mutilak (mutil-lagunak) jokatzen du Formenteran, futbolean. Eta bueno, ba, nik ezagutu nuen Leioan pasa den urtean, eta bueno, ba pentsatu nuen, eta berarekin etorri nintzen hona.

KAZETARIA 2. Baina zure mutilak gaur Athleticen aurkako partida jokatuko du?

ITXASO MINGO. Bai.

KAZETARIA 2. A! Zure mutila nor da ba?

ITXASO MINGO. Bai. Gabriel Gómez.

KAZETARIA 2. A, orduan zu gaur, beharbada, Athleticen aurka egongo zara, Formenteraren alde.

ITXASO MINGO. Bai. Bueno, holan nago: bihotza zatituta pixka bat. Baina, bueno, bai. Gaur tokatuko zait Athleticen aurka egotea.

KAZETARIA 2. Eta zer esango zenioke Formenteran egon ez den norbaiti? Zergatik joan behar da Formenterara? Edo zer, zuk zergatik erabaki zenuen ba joatea? Zer pentsatu zenuen irla ezagutu zenuenean?

ITXASO MINGO. Ba begiratu, ez nuen ezagutzen Formentera, etorri nintzenean. Eta bueno, nik heldu nuen (ni heldu nintzen) neguan, eta hemen, claro, neguan ez da geratzen inor. Tabernak itxita dagoz (daude), arropa-dendak bere (ere) bai, ez dago, ez da geratzen jendea kalean...Baina gero, badauzka leku oso, oso politak ikusteko: hondartzak...Badago Cap de Barbaria ezagutzen den faro handi bat. Eta ez dakit, da oso, oso lasaia. Sentitzen da bake asko (handia) hemen, irlan.

A2.2 MAILA

ENTZUMENAREN ULERMENA

Itxaso Mingoa bizkaitarra da, Leioakoa, baina orain Formenteran bizi da. Uharte horri buruzko informazioa emango digu irratiko elkarrizketa honetan.

Entzun audioa eta aukeratu erantzun egokia.

Nolakoa da Formentera irla? Aukeratu Itxasok esaten **ez** duena.

- Ez dago tabernarik
- Lasaia
- Txikia

Zer dauka ikusteko? Ondorengo zer **ez** du esaten?

- Museoak
- Faroa
- Hondartzak

Orain, udazkenean, badago jenderik?

- Oraindik ere jende asko dago
- Ez da ia inor geratzen
- Turista asko itzuli da etxera

Noiz joan da Itxaso Formenterara?

- Aurten, urte hasieran.
- Urteak daramatza.
- Udan joan zen

Zergatik joan zen Formenterara?

- Turismoa egin nahi zuelako
- Lanagatik
- Maitasunagatik

A2.2 MAILA

ENTZUMENAREN ERANTZUNAK.

1. Ez dago tabernarik.
2. Museoak.
3. Turista asko itzuli da etxera
4. Aurten, urte hasieran.
5. Maitasunagatik